EBATZI DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Notariotzak betetzeko, ondoren aipatzen diren notarioak izendatzea:

Getxoko notaritzarako, Pérez Rodríguez jauna erretiratu egin baita, Mungiako (3.a) notarioa den José Luis Figuerola Santos jauna izendatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 1a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

RESUELVO:

Nombrar para proveer las Notarías anunciadas, radicadas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a los Notarios que se relacionan a continuación:

Para la Notaría de Getxo (por jubilación del Sr. Pérez Rodríguez) a Don José Luis Figuerola Santos, Notario de Mungia–3.ª.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de febrero de 2005.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

# Oposaketak eta Lehiaketak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 815

AGINDUA, 2005eko otsailaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoan sartzeko hautatze-probak deitzen dituena.

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako irakasleen kidegoei buruzkoak, Musika eta Antzertiko irakasleen kidegoa sortu zen, musika, dantza eta arte dramatikoko oinarrizko eta erdi mailako irakaskuntzak emateko.

Lege horretako 16. artikuluak ezarri duenez, karrerako funtzionario irakasleak hautatzeko sistema oposizio-lehiaketa izango da, aurrez deialdi irekia egin ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikorako eskaintza onartu da, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko urtarrilaren 18ko Aginduaren bitartez.

Horregatik guztiarengatik, azaldutakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengoa.–* Hautaprobak deitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoan sartzeko, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko urtarrilaren 18ko Aginduak, Eus-

# Oposiciones y Concursos

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 815

ORDEN de 3 de febrero de 2005, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan pruebas selectivas para el ingreso en el Cuerpo de Profesores/as de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, creó el Cuerpo de Profesores/as de Música y Artes Escénicas, que imparte las enseñanzas correspondientes a los grados elemental y medio de música, danza y arte dramático.

En el artículo 16 de dicha Ley se establece que el sistema de selección de los funcionario/as de carrera docente será el de concurso-oposición, previa convocatoria pública.

Ha sido aprobada la oferta de empleo público de la Administración Educativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco mediante Orden de 18 de enero de 2005, de la Consejera de Hacienda Y Administración Pública.

Por todo ello, en virtud de cuanto ha quedado expuesto,

DISPONGO:

*Primero.–* Convocar pruebas selectivas para el ingreso en el Cuerpo de Profesores/as de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en relación con las plazas anunciadas en la Orden de 18 de

kal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2005erako enplegu publikorako eskaintza onartzen duenak, iragarritako lanpostuei dagokienez.

*Bigarrena.–* Aipatu hautaprobek arau izango dituzten oinarriak onartzea.

AZKEN XEDAPENA

Interesatuek berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari Agindu honen aurka, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Salan, bi hilabeteko epean, lehenago aipatutako datatik ere kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko otsailaren 3a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

OINARRIAK

1.– Sartzeko prozedura.

1.1.– Oposizio-lehiaketarako deia egin da, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoan sartzeko.

1.2.– Eskainitako lanpostuak A taldekoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegokoak, eta honela banatzen dira, espezialitateen eta hizkuntzen arabera:

enero de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueba la oferta pública de empleo de la Administración Educativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 2005.

*Segundo.–* Aprobar las bases que han de regir las mencionadas pruebas selectivas.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden, los/as interesados/as podrán interponer recurso de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar igualmente desde aquella misma fecha.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2005.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

BASES:

1.– Procedimiento de ingreso.

1.1.– Se convoca concurso-oposición para el ingreso en el Cuerpo de Profesores/as de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

1.2.– Las plazas ofertadas corresponden al Grupo A y al Cuerpo de Profesores/as de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y su distribución por especialidad e idioma es la siguiente:

| Eskainitako lanpostuak<br>Espezialitatea | Hizkuntza<br>HE1 | Txanda<br>HE2 I | Irekia | Erreserba<br>ezinduentzat |
|---|---|---|---|---|
| Harpa | 1 | | 1 | |
| Kantua | 2 | | 2 | |
| Klarinetea | 1 | 1 | 2 | |
| Kontrabaxua | 1 | | 1 | |
| Fagota | 1 | | 1 | |
| Zehar-flauta | 1 | 1 | 2 | |
| Gitarra | | 1 | 1 | |
| Oboea | 1 | | 1 | |
| Orkestra | 1 | | 1 | |
| Perkusioa | 1 | | 1 | |
| Pianoa | | 6 | 6 | |
| Saxofoia | 1 | | 1 | |
| Tronpa | 1 | | 1 | |
| Tronpeta | 1 | | 1 | |
| Biola | 1 | 1 | 2 | |
| Biolina | 2 | 2 | 3 | 1 HE1 |
| Biolontxeloa | 1 | | 1 | |
| Musika-hizkuntza | | 2 | 2 | |
| Konposizio-oinarriak | | 1 | 1 | |
| Musikaren Historia | | 1 | 1 | |
| GUZTIRA | 17 | 16 | 32 | 1 |

| *Plazas ofertadas* *Especialidad* | *Idioma* *PL 1* | *Turno* *PL 2 V* | *Libre* | *Reserva* *Minusválidos/as* |
|---|---|---|---|---|
| *Arpa* | *1* | | *1* | |
| *Canto* | *2* | | *2* | |
| *Clarinete* | *1* | *1* | *2* | |
| *Contrabajo* | *1* | | *1* | |
| *Fagot* | *1* | | *1* | |
| *Flauta travesera* | *1* | *1* | *2* | |
| *Guitarra* | | *1* | *1* | |
| *Oboe* | *1* | | *1* | |
| *Orquesta* | *1* | | *1* | |
| *Percusión* | *1* | | *1* | |
| *Piano* | | *6* | *6* | |
| *Saxofón* | *1* | | *1* | |
| *Trompa* | *1* | | *1* | |
| *Trompeta* | *1* | | *1* | |
| *Viola* | *1* | *1* | *2* | |
| *Violín* | *2* | *2* | *3* | *1 PL 1* |
| *Violoncelo* | *1* | | *1* | |
| *Lenguaje Musical* | | *2* | *2* | |
| *Fund. de composición* | | *1* | *1* | |
| *Historia de la Música* | | *1* | *1* | |
| *Total* | *17* | *16* | *32* | *1* |

1.3.– Ezinduei erreserbaturiko txandan eskaini den lanpostua bete gabe geratzen bada, txanda irekikoei gehituko zaie eta hortik beteko da.

1.4.– Ondorengo lege eta dekretuak aplikatu ahal izango zaizkio prozedura honi: abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoa, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa; otsailaren 19ko 2/1993 Legea, Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako irakasleen kidegoei buruzkoa; abenduaren 23ko 17/1993 Legea, Europar Batasuneko partaide diren gainontzeko estatuetako herritarrak funtzio publikoko zenbait sektoretan sartzeari buruzkoa; abenduaren 30eko 66/1997 Legea, Zerga, Administrazio eta Gizarte Mailako Neurriei buruzkoa; urtarrilaren 23ko 118/2004 Errege Dekretua, Espezializazio Didaktikoaren titulua arautu duena; otsailaren 27ko 334/2004 Errege Dekretua, hezkuntza-sistemako eskola-irakaskuntzak ematen dituzten irakasleen kidegoetan eta Hezkuntzako ikuskarien kidegoan sartzeko eta kidego horietan espezialitate berriak eskuratzeko Araudia onartzen duena; martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena; uztailaren 23ko 182/2002 Dekretua, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduentzako Hezkuntzako lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak zehazteko irizpideak ezartzen dituena; oro har, aplikatu ahal diren gainontzeko xedapenak eta deialdi honetan ebatzitakoa.

2.– Izangaien baldintzak.

1.3.– En caso de que la plaza ofertada por el turno de reserva a minusválidos/as quedara desierta, se acumulará y se cubrirá con las ofertadas por el turno libre.

1.4.– Al presente procedimiento selectivo le será de aplicación: la Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación; la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria de la CAPV; la Ley 17/1993, de 23 de diciembre, sobre el acceso a determinados sectores de la función pública de los nacionales de los demás Estados miembros de la Unión Europea; la Ley 66/1997, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social; el Real Decreto 118/2004, de 23 de enero, por el que se regula el título de Especialización Didáctica; el Real Decreto 334/2004, de 27 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de ingreso, accesos y adquisición de nuevas especialidades en los Cuerpos Docentes que imparten las enseñanzas escolares del sistema educativo y en el Cuerpo de Inspectores de Educación; el Decreto 47/1993, de 9 de marzo, sobre perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes; el Decreto 182/2002, de 23 de julio, por el que se establecen los criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes en las Enseñanzas de Régimen Especial y Educación de Personas Adultas; las demás disposiciones de general aplicación, así como lo dispuesto en la presente convocatoria.

2.– Requisitos de los/as candidatos/as.

2.1.– Baldintza orokorrak.

Izangaiek ondorengo baldintza orokorrak bete beharko dituzte, aukeratze-prozesuan onartuak izan ahal izateko:

A) Espainola edo Europar Batasuneko Estatu bateko nazionala izatea edo, bestela, Europar Batasunak hitzartutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea indarrean dagoen estaturen bateko nazionala izatea.

Halaber, espainolen ezkontideek, Europar Batasuneko partaide diren gainontzeko Estatuetako nazionalen ezkontideek eta, Europar Batasunak hitzartutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea indarrean dagoen estaturen bateko nazionalen ezkontideek ere hartu ahal izango dute aukeratze-prozesu honetan parte, betiere legez bananduta ez baldin badaude, baita haien eta ezkontidearen ondorengoek, 21 urtetik beherakoak baldin badira eta, adin hori gainditu arren, gurasoen bizkar bizi baldin badira.

B) Hemezortzi urte izatea eta erretiroa hartzeko, oro har, zehaztutako adinera oraindik ez iristea.

C) Gaixotasunik ez izatea, ezta aukeratzen diren kidego eta espezialitatearen funtzioetan aritzearekin bateraezina den muga fisiko edo psikikorik ere.

D) Zigor-espedientearen bidez edozein Administrazio Publikoren zerbitzutik kendu ez izana, ezta funtzio publikoetan aritzeko ezgaituta egotea ere.

Halaber, nazionalitate espainola ez duten izangaiek beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina- edo kondena penalik ez dutela egiaztatu beharko dute.

E) Zer kidegotara sartu nahi den, kidego horretako karrerako funtzionario edo praktiketakoa ez izatea, edo izendapenaren zain ez egotea, non eta beste espezialitate batzuk lortu nahi ez diren.

2.2.– Berariazko baldintzak.

Esandako baldintza orokorrez gain, izangaiek ondoko berariazko baldintzak bete beharko dituzte:

A) Doktorearen, lizentziadunaren, ingeniariaren edo arkitektoaren titulua, edo irakasteko baliokideren bat, izan beharko dute, edo bestela, 2618/1966 Dekretuaren araberako Musikako goi-irakasle titulua, edo plan horretako edo aurreko planetako tituluak, irakaskuntzarako baliokide direnak.

Titulazio horiek atzerrian lortu izanez gero, homologatuta egon beharko dute, urtarrilaren 16ko 89/1987 eta urtarrilaren 29ko 104/1988 Errege Dekretuen arabera edo, bestela, aitortuta egon beharko dute, 89/48/EEE Zuzentarauak eta urriaren 25eko

2.1.– Requisitos generales.

Para ser admitido/a al proceso selectivo, los/as aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos de carácter general:

A) Ser español/a o nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, o nacional de algún Estado al que, en virtud de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as.

También podrán participar el cónyuge de los españoles, de los nacionales de alguno de los demás Estados miembros de la Unión Europea, y de los nacionales de algún Estado al que, en virtud de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as, siempre que no estén separados/as de derecho, así como sus descendientes y los del cónyuge, menores de 21 años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

B) Tener cumplidos los dieciocho años y no haber alcanzado la edad establecida, con carácter general, para la jubilación.

C) No padecer enfermedad ni estar afectado/a por limitación física o psíquica incompatible con el desempeño de las funciones correspondientes al Cuerpo y especialidad a que se opta.

D) No haber sido separado/a, por expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni estar inhabilitado/a para el desempeño de funciones públicas.

Los/as aspirantes cuya nacionalidad no sea la española deberán acreditar, igualmente, no estar sometidos a sanción disciplinaria o condena penal que impida, en su Estado, el acceso a la función pública.

E) No ser funcionario/a de carrera, en prácticas o estar pendiente de nombramiento, del Cuerpo al que se opta, salvo que se aspire a la adquisición de nuevas especialidades.

2.2.– Requisitos específicos.

Además de los requisitos de carácter general señalados, los/as aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos:

A) Estar en posesión del título de Doctor, Licenciado, Ingeniero, Arquitecto o equivalentes a efectos de docencia, o bien estar en posesión del título de Profesor Superior de Música del Decreto 2618/1966, o títulos de dicho Plan o de Planes anteriores equivalentes a efectos de docencia.

En el caso de que dichas titulaciones se hayan obtenido en el extranjero, deberá haberse concedido la correspondiente homologación, de conformidad con lo dispuesto en los Reales Decretos 89/1987, de 16 de enero, y 104/1988, de 29 de enero, o su reconocimiento al

1665/1991 Errege Dekretuak zehaztutakoaren babesean, aplikatu ahal diren heinean.

B) 1. edo 2. hizkuntz eskakizuna izatea, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuak, Araubide Bereziko Irakaskuntzako eta Helduen Irakaskuntzako lanpostuetan hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko irizpideak eta derrigorrezkotasun-egunak ezarri dituenak, 5. artikuluan xedatu duenaren arabera, eta otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Unibertsitatekoez kanpoko EAEko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoak, hamabosgarren xedapen gehigarrian dioenarekin lotuta.

Aipatu 182/2002 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak ezarri duenaren arabera, aurreko paragrafoak eskatzen duena betetzetik jare uzten dira bitarteko langileak eta aldi baterako kontratua zutenak, baldin eta Dekretu hori indarrean sartu zenean (2002ko abuztuaren 14a) Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoko irakaskuntzei dagozkien lanpostuak betetzen bazeuden. Irakasle horiek kidego horretako karrerako funtzionario izatera iritsi daitezke, 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuetara, baldintza hori bete gabe ere, eta hiru urteko epea izango dute, karrerako funtzionario izendatzen dituztenetik, hizkuntz eskakizun hori egiaztatzeko.

2.3.– Elbarritasuna dutenentzat erreserbatutako prozeduraren bidez parte hartzeko berariazko baldintzak:

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, deitutako lanpostu guztien zenbateko bat prozedura honen bidez eskuratzeko erreserbatuko dira. Prozedura horretan parte hartu ahal izateko, kidego bakoitzeko sarbide libreko baldintza orokorrak eta berariazko baldintza betetzeaz gain, irakaskuntzan aritzearekin bateraezina ez den %33ko edo gehiagoko ezgaitasuna beharko da, foru aldundietako Gizarte Ongizate sailetako, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko edo, hala egokituz gero, gai honetan eskuduntzak dituzten gainerako autonomia erkidegoetako organo eskudunek aitortuta.

Erreserba horretarako aukera parte hartzeko eskaeran egin beharko da, eta berariaz adieraziko da horretarako eskatu baldintza betetzen dela. Lanpostua lortutakoan, eskumena duten organoen ziurtagirien bidez, adierazitako baldintza hori betetzen dela egiaztatu beharko da.

Hala ere, hautaprobak egitean, epaimahaiak zalantzarik izango balu hautagaiak atzeman nahi duen kidegoan funtzionarioek egin ohi dituzten jarduerak egiteko hautagaiaren gaitasunaren inguruan, aurreko zatiak aurreikusitakoa aintzat harturik, eskumena duen organoari auziari buruzko irizpidea eskatu ahal izango dio. Kasu horretan, irizpena azaldu bitartean, hautagaiak baldintzapean jarraitu ahal izango du hautespen-prozesuan, eta prozesuan onartzeko edo prozesutik kanpora-

amparo de lo establecido por la Directiva 89/48/CEE, y el Real Decreto 1665/1991, de 25 de octubre, en cuanto sean de aplicación.

B) Estar en posesión del perfil lingüístico 1 ó 2, conforme a lo previsto en el artículo 5 del Decreto 182/2002, de 23 de julio, por el que se establecen los criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes en las Enseñanzas de Régimen Especial y Educación de Personas Adultas, en relación con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la enseñanza no universitaria de la CAPV.

De conformidad con lo establecido en la disposición adicional primera del referido Decreto 182/2002, se excepciona de lo exigido en el párrafo anterior al personal interino y contratado temporal que, a la entrada en vigor de dicho Decreto (14 de agosto de 2002), se encontraba desempeñando puestos de trabajo correspondientes a las enseñanzas del Cuerpo de Profesores/as de Música y Artes Escénicas. Este profesorado podrá acceder a la condición de funcionario/a de carrera del señalado Cuerpo, a plazas de perfil lingüístico 1, aún careciendo de dicho requisito, y dispondrán de un plazo de tres años, desde su nombramiento como funcionario/a de carrera, para acreditar el mismo.

2.3.– Requisitos específicos para participar por el procedimiento de reserva de minusvalía.

Podrán participar por este procedimiento, para el que de acuerdo con la disposición adicional séptima de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se reserva un cupo del total de las plazas convocadas, aquellos/as aspirantes que, además de reunir las condiciones generales y específicas exigidas para el ingreso libre a cada uno de los Cuerpos, tengan reconocida por los órganos competentes de los Departamentos de Bienestar Social de las Diputaciones Forales, del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales y, en su caso, de la Comunidad Autónoma correspondiente, una disminución física de, al menos, un 33 por 100, siempre que ello no sea incompatible con el ejercicio de la docencia.

La opción por esta reserva habrá de formularse en la solicitud de participación, con declaración expresa de reunir la condición exigida al respecto, que se acreditará si obtuviere plaza, mediante certificación de los órganos competentes.

No obstante, si en la realización de las pruebas se suscitaran dudas al Tribunal respecto de la capacidad del/a aspirante para el desempeño de las actividades habitualmente desarrolladas por los funcionarios/as del cuerpo al que opta, podrá recabar el correspondiente dictamen del órgano competente conforme a lo previsto en el apartado anterior. En este caso, y hasta tanto se emita el dictamen, el/la aspirante podrá seguir participando condicionalmente en el proceso selectivo que-

tzeko behin betiko ebazpena, adierazitako irizpena jaso arte etenik izango da.

Hautespen-prozesua berdintasuneko baldintzetan egingo da sarbide irekiko hautagaiekiko; hala ere, deialdi honen 3.2 atalean aurreikusitako egokitzapenak egin beharko dira.

Erreserba horren bidez aurkezten diren hautagaiak ezin izango dira espezialitate berean aurkeztu sarbide irekiaren sistemaren bidez.

2.4.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, oinarri-arau honetan zerrendatutako baldintza guztiak izan behar dituzte izangaiek, eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartu arte gorde beharko dituzte. Salbuespen bakarra dago: hizkuntz eskakizuna egiaztatzearena, 2005eko uztailaren 1a baino lehen eskuratu eta egiaztatu beharko da eta.

3.– Eskabideak.

3.1.– Hautespen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek, eredu normalizatuaren araberako eskabidea aurkeztu beharko dute ondoren adierazten diren moduetako batean:

a) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan interesdunen eskura egongo diren eskabideak betez.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneteko honako helbide honetan duen eredua betez: http://www.hezkuntza.ej-gv.net.

Eskabide bakarra baino ezin izango da aurkeztu, espezialitate batera baino gehiagora aurkeztu ezean. Kasu horretan, zenbat espezialitatetara aurkeztu, hainbat eskabide eta merezimendu egiaztatzeko agiri multzo eskuratu beharko dira.

3.2.– Elbarritasuna duten hautagaiek hala adieraziko dute eskabidean, horretarako dagoen laukian, bai eta probak egiteko eskatzen dituzten egokitzapenak ere, denborari dagokionez zein baliabideei dagokienez, gainerako hautagaien aldean baldintza berdinetan lehiatu ahal izateko. Eskabidean horretarako dagoen tokia nahikoa ez bada eskatzen den egokitzapena azaltzeko, inprimakiari erantsitako orrian azalduko da.

3.3.– Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek beren herrialdeko nortasun-txartelaren edo pasaportearen zenbakia idatzi beharko dute nortasun agiri nazionalaren atalean. Halaber, zein nazionalitatekoak diren adierazi beharko dute eta, atzerriko hizkuntza gisa Espainieraren Goi Mailako Diploma, atzerritarrentzako Espainieraren Gaitasun Ziurtagiria edo Filologia Hispanikoan edo Erromanikoan lizentziadunaren titulua izanez gero, «gaztelaniazko probatik salbuetsita» daudela adierazi beharko dute.

dando en suspenso la resolución definitiva sobre la admisión o exclusión del proceso hasta la recepción del dictamen.

El procedimiento selectivo se realizará en condiciones de igualdad con los/as aspirantes de ingreso libre, sin perjuicio de las adaptaciones previstas en el apartado 3.2 de esta convocatoria.

Los/as aspirantes que concurran por esta reserva no podrán concurrir a la misma especialidad por el sistema de ingreso libre.

2.4.– Todos los requisitos enumerados en la presente base deberán poseerse en el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse hasta la toma de posesión como funcionario/a de carrera, con la única excepción del relativo a la acreditación del perfil lingüístico, que deberá poseerse y acreditarse con anterioridad al 1 de julio de 2005.

3.– Solicitudes.

3.1.– Quienes deseen tomar parte en el presente proceso selectivo deberán presentar una solicitud, según modelo normalizado, de acuerdo con alguna de las siguientes modalidades:

a) Cumplimentando el impreso que estará a disposición de los/as interesados/as en las Delegaciones Territoriales de Educación.

b) Cumplimentando el modelo que se encuentra disponible en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

No podrá presentarse más de una solicitud, salvo que se opte a más de una especialidad. En este caso, habrán de presentarse tantas solicitudes y documentación justificativa de méritos como número de especialidades a las que se opte.

3.2.– Los/as aspirantes con minusvalía harán constar en la casilla correspondiente de la solicitud esta condición, así como la adaptación que soliciten referente al tiempo y a los medios materiales para la realización de las pruebas, para que puedan actuar en igualdad de condiciones que el resto de participantes. Si dicha adaptación no pudiera expresarse íntegramente en el espacio de la solicitud reservado a tales fines, lo harán constar en hoja adjunta.

3.3.– Los/as aspirantes de nacionalidad distinta a la española deberán consignar en el apartado correspondiente al Documento Nacional de Identidad, el número correspondiente a la tarjeta de identidad de su país o el número de su pasaporte. Asimismo, deberán indicar la nacionalidad que poseen y, en caso de estar en posesión del Diploma Superior de Español como lengua extranjera, del certificado de Aptitud de Español para extranjeros/as, o del título de Licenciado en Filología Hispánica o Románica, deberán consignar «exento/a de prueba de castellano».

Parte hartzeko eskabidea ematearekin batera agiri horiek aurkezten ez dituzten hautagaiak ezin izango dira salbuetsi kontsideratu eta, horrenbestez, gaztelaniaz dakitela egiaztatzeko proba bat egin beharko dute aldez aurretik, betiere deialdi honen 7.2. oinarriak xedatzen duenarekin bat etorriz.

3.4.– Tasak.

Maiatzaren 29ko 13/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko tasa eta prezio publikoei buruzkoak, 31. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, izangaiek 19,55 euroko zenbatekoa ordaindu beharko dute, azterketa egiteko tasaren kontzeptuan, deialdi honetan parte hartu ahal izateko.

Tasa hori eskaerak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko da, ondorengo banketxeetako edozein sukurtsaletan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren izenean irekitako kontuan, «Musika Kontserbatorioetako EPE tasa» ordaintzeko dela adieraziz: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa), Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, BBVA, Santander Central Hispano edo Banco Guipuzcoano.

Azterketa egiteko tasa ordaindu ezean edo epez kanpo ordainduz gero, izangaia prozesutik kanpo geldituko da.

Banku-erakundean agiriak aurkezteak eta tasak ordaintzeak ez du, inolaz ere, eskabidea behar denboran eta eran, oinarri honetako 3.7 atalean adierazitako moduan, aurkezteko izapidea ordezkatuko.

3.5.– Agiriak.

3.5.1.– Orokorrak:

Deialdi honi lotutako I.eranskineko baremoak aipatzen dituen merezimenduak baloratzeko, izangaiek, eskabidearekin batera, merezimendu horiek egiaztatzeko agiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) aurkeztuko dituzte. Horrenbestez, eskabideak aurkezteko epean eta deialdi honek zehaztutako agirien bidez egokiro egiaztatzen diren merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko.

Alegatutako tituluaren espediente akademikoa baloratu ahal izateko, titulua atzerrian eskuratu duten izangaiek aurreko lerrokadan adierazitako epean aurkeztu beharko dute titulua, baina eskabideak aurkezteko epea agortu ondoren, egutegiko beste hogei egun gehiago izango dituzte titulua eman zuen herriko Hezkuntzako Administrazioak karrera osoan zehar lortutako kalifikazioen batez bestekoaren egiaztapena eman dezan. Horrez gain, Espainiako kalifikazioekin baliokideak zehazteko xedez, atzerriko sistema akademiko horretan lor daitezkeen kalifikazio gorenak zeintzuk diren ere adierazi beharko du.

Aquellos/as aspirantes que no adjunten esta documentación a la solicitud de participación no podrán ser declarados/as exentos/as y, en consecuencia, deberán realizar la prueba previa de acreditación del conocimiento de la lengua castellana, de acuerdo con lo que se establece en la base 7.2 de esta convocatoria.

3.4.– Tasas.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 31 y siguientes de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de tasas y precios públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para poder participar en la presente convocatoria los/as aspirantes deberán abonar, en concepto de tasa por derecho de examen, la cantidad de 19,55 euros.

El pago de la tasa deberá efectuarse dentro del plazo de presentación de solicitudes, en cualquiera de las sucursales de las siguientes entidades, en la cuenta abierta a nombre de la Delegación Territorial de Educación, haciendo constar que se realiza en concepto de «Tasa OPE Conservatorios de Música»: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, BBK (Bilbao Bizkaia Kutxa), Caja Vital Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, BBVA, Santander Central Hispano o Banco Guipuzcoano.

La falta de pago o el abono fuera de plazo de los derechos de examen determinará la exclusión del aspirante.

En ningún caso, la presentación y pago en la entidad bancaria supondrá sustitución del trámite de presentación en tiempo y forma de la solicitud en la forma prevista en el apartado 3.7 de esta base.

3.5.– Documentación.

3.5.1.– De carácter general:

Los/as aspirantes acompañarán a su solicitud toda la documentación justificativa (original o fotocopia compulsada) para la valoración de los méritos a que se hace referencia en el baremo que como anexo I se acompaña a la presente convocatoria, entendiéndose que solamente se tomarán en consideración aquellos méritos debidamente justificados, a través de la documentación que se determina en la presente convocatoria, durante el plazo de presentación de instancias.

A efectos de valoración del expediente académico del título alegado, los/as aspirantes cuyo título haya sido obtenido en el extranjero, y que deberán presentar en el plazo indicado en el párrafo anterior, tendrán un plazo adicional de veinte días naturales, a partir de que expire el de presentación de instancias, para aportar certificación expedida por la Administración Educativa del país en que se obtuvo el título que indique la nota media deducida de las calificaciones obtenidas en toda la carrera y exprese, además, la calificación máxima obtenible de acuerdo con el sistema académico correspondiente, a efectos de determinar su equivalencia con las españolas.

3.5.2.– Berariazkoak:

a) Nazionalitate espainola duten izangaiek: nortasun agiri nazionalaren bi fotokopia.

b) Beste nazionalitate bateko izangaiek:

1.– Espainian bizi diren izangai atzerritarrek nortasun agiriaren edo pasaportearen bi fotokopia konpultsatu aurkeztu beharko dituzte, baita Europar Batasuneko egoiliarra dela edo egoiliar baten senidea dela adierazten duen txartelaren bi fotokopia ere, edo, hala behar denean, Europar Batasuneko aldi baterako egoiliarra dela adierazten duen txartelarenak edo Europar Batasuneko muga-langilearen txartelarenak. Agiri guztiek indarrean izan beharko dute.

Europar Batasuneko, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko nazionalitatea duten eta Espainian bizi ez diren izangaiek –bai atzerrian bizi direlako edo Espainian egonaldi-erregimenean daudelako-, nortasun agiriaren edo pasaportearen konpultsatutako bi fotokopia aurkeztu beharko dituzte.

Gorago adierazitako horien familiartekoek ondokoak aurkeztu beharko dituzte: pasaportearen, bisatuaren eta, hala behar izanez gero, dagokion txartela eskatu izanaren ordezkagiriaren edo bisatuaren eta txartelaren salbuespena eskatu izanaren ordezkagiriaren konpultsatutako bina fotokopia. Agiri horiek ez badira eskatu, eskumendun agintariek emandako agiriak, ahaidetasuna frogatzen dutenak, aurkeztu beharko dituzte. Aurkeztu beharko dituzte, halaber, horrekin lotura duen espainolaren zinpeko deklarazioa edo agintza edo Europar Batasuneko nahiz aurreko lerroaldean adierazitako Estaturen bateko herritarrarena, hitza emanez ezkontidearengandik ez dagoela zuzenbidez bereizita eta, hala balitz, izangaia horren pentzutan edo bere kargura bizi dela adieraziz.

2.– Hautaproba hauetan parte hartzeko alegatutako tituluaren fotokopia konpultsatua edo dagokion unibertsitateko errektoreak emandako ordezko ziurtagiria, haren homologazioa egiaztatuko duen kredentzialarekin edo Musikako irakasle gisa aritzeko kredentzialarekin, 89/48 EEE Zuzentaraua aplikatuz.

3.– Haren estatuan funtzio publikora sartzea eragozten dion diziplina-zehapen edo kondena penalik ezarri ez izanaren zinpeko aitortza edo agintza.

4.– Nazionalitate espainolik ez duten izangaietan 3.3 oinarriaren arabera gaztelaniazko proba egitetik salbuetsita daudenek, ondorengo tituluetako baten fotokopia konpultsatua edo tituluak lortzeko tasak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko dute: Atzerriko Hizkuntza gisa Espainieraren Goi Mailako Diploma, urtarrilaren 10eko 1/1992 Errege Dekretuak aldatu eta osatu duen uztailaren 20ko 826/1988 Errege Dekretuak zehazten duena, Atzerritarrentzako Espainieraren Gai-

3.5.2.– De carácter específico:

a) Para los/as aspirantes de nacionalidad española: dos fotocopias del documento nacional de identidad.

b) Para los/as aspirantes de otra nacionalidad:

1.– Los/as aspirantes extranjeros que residan en España deberán presentar dos fotocopias compulsadas del correspondiente DNI o pasaporte y de la tarjeta de residente comunitario o de familiar de residente comunitario en vigor o, en su caso, de la tarjeta temporal de residente comunitario o de trabajador/a comunitario fronterizo en vigor.

Los/as aspirantes que sean nacionales de la Unión Europea o de algún Estado al que en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as y que no residan en España, bien por residir en el extranjero o por encontrarse en España en régimen de estancia, deberán presentar dos fotocopias compulsadas del documento de identidad o pasaporte.

Los familiares de los anteriores deberán presentar dos fotocopias compulsadas del pasaporte, del visado y, en su caso, del resguardo de haber solicitado la correspondiente tarjeta o del resguardo de haber solicitado la exención del visado y la correspondiente tarjeta. De no haberse solicitado estos documentos deberán presentar los documentos expedidos por las autoridades competentes que acrediten el vínculo de parentesco y una declaración jurada o promesa del español o del nacional de la Unión Europea, o del nacional de alguno de los Estados señalados en el párrafo anterior con el que existe este vínculo, de que no está separado de derecho de su cónyuge y, en su caso, del hecho de que el aspirante vive a sus expensas o está a su cargo.

2.– Fotocopia compulsada del título alegado para participar en estas pruebas selectivas o certificación sustitutoria expedida por el Rector de la Universidad correspondiente, junto con la credencial que acredite su homologación o la credencial de reconocimiento para el ejercicio de la profesión de Profesor de Música en aplicación de la Directiva 89/48 CEE.

3.– Declaración jurada o promesa de no estar sometido/a a sanción disciplinaria o condena penal que impida, en su Estado, el acceso a la Función Pública.

4.– Los/as aspirantes que no posean la nacionalidad española y que, conforme a lo previsto en la base 3.3, estén exentos/as de la prueba de conocimiento del Castellano, deberán presentar fotocopia compulsada del Diploma Superior de Español como Lengua Extranjera establecido por el Real Decreto 826/1988, de 20 de julio, modificado y completado por el Real Decreto 1/1992, de 10 de enero, o del Certificado de Aptitud de Español para Extranjeros expedido por las Escuelas

tasun Ziurtagiria -hizkuntz eskola ofizialek ematen dituzte bi titulu hauek-, edo Filologia Hispanikoan edo Erromanikoan lizentziadunaren titulua.

Parte hartzeko eskaerari agiri horiek gehitzen ez dizkioten izangaiak ezin izango dira salbuetsitzat jo, eta, ondorioz, gaztelaniaren jakite maila frogatzeko proba egin beharko dute, aldez aurretik, deialdi honen 7.2. oinarrian xedatutakoaren arabera.

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek gaztelaniarako itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko dute adierazitako dokumentazio guztia. Titulazio akademikoei eta emandako zerbitzuen orriei dagokienez, zinpeko interprete batek egin beharko du itzulpena; gainerako dokumentazioaren itzulpenak, berriz, zinpeko interpreteak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

3.6.– Aurkezteko tokia.

Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariari bidaliko zaizkio, eta ondoko tokietako batean aurkez daitezke:

a) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

b) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4. artikuluan aurre ikusitako edozein eratan, xedapen horretan ezarritako baldintzen arabera.

c) Interneten bidez: horretarako, lehenengo eta behin, inprimakia bete beharko da, eta gero, dokumentua igorri.

Interneten bidez aurkeztutako eskabideek jaso izanaren agiria lortu ahal izango dute, esleitutako erreferentzia-zenbakiarekin eta tasak ordaindu ahal izateko behar diren datuekin. Halaber, eskabidearen ordezkagiria ere lortu ahal izango da; deialdi honetan adierazten diren epeetan eta lekuetan aurkeztuko diren merezimenduei erantsiko zaie agiri hori.

Atzerrian egindako eskabideak tokian tokiko Espainiako ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsulatuetan aurkeztu ahal izango dira, oinarri hauetako 3.7 puntuan adierazitako epean aurkeztu ere, eta erakunde horiek eskumena duen administraziora igorriko dituzte. Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeko deialdi honetako 3.4 puntuak xedatutakoari jarraituko zaio.

3.7.– Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hogei egun naturalekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Goiko 3.5.2. puntuan aipatzen den dokumentazioa aukeratze-prozesua bukatu eta gainditu duten izangaien

Oficiales de Idiomas, o del Título de Licenciado en Filología Hispánica o Románica, o certificación de haber abonado los derechos para la obtención de los mencionados títulos.

Aquellos/as aspirantes que no adjunten esta documentación a la solicitud de participación no podrán ser declarados/as exentos/as y, en consecuencia, deberán realizar la prueba previa de acreditación del conocimiento de la lengua castellana, de acuerdo con lo que se establece en la base 7.2 de esta convocatoria.

Los/as aspirantes que no posean la nacionalidad española deberán presentar toda la documentación señalada con la correspondiente traducción oficial al castellano. En el caso de las titulaciones académicas y de la hoja de servicios prestados, dicha traducción deberá estar realizada por intérprete jurado; en tanto que el resto de la documentación deberá estar realizada por intérprete jurado o validada por el consulado u oficina diplomática correspondiente.

3.6.– Lugar de presentación.

Las instancias, dirigidas a la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, podrán presentarse:

a) En las Delegaciones Territoriales de Educación.

b) En cualquiera de las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de acuerdo con las condiciones establecidas en dicho precepto.

c) Por vía Internet, utilizando la opción de remitir la solicitud, una vez cumplimentado el impreso.

Las solicitudes que se presenten vía Internet podrán obtener un acuse de recibo con el número de referencia asignado y los datos precisos para proceder al pago de la tasa. Asimismo, se podrá obtener un resguardo de la solicitud que se adjuntará a los méritos a presentar en los lugares y plazos indicados en la presente convocatoria.

Las solicitudes suscritas en el extranjero podrán presentarse en el plazo señalado en el apartado 3.7 de la presente base, en las representaciones diplomáticas o consulares españolas correspondientes, quienes las remitirán seguidamente al organismo competente. El abono de las tasas por derechos de examen se hará de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3.4 de esta convocatoria.

3.7.– Plazo de presentación.

El plazo de presentación de instancias será de veinte días naturales, contados a partir del siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

La documentación que se señala en el punto 3.5.2 podrá presentarse una vez finalizado el proceso selecti-

zerrenda argitara eman ondoren aurkeztu ahal izango da, 9.1. oinarrian xedatutakoaren arabera, a) letran eta b) letraren 4. atalean eskatutakoak izan ezik, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira eta.

3.8.– Eskabideetan antzeman daitezkeen akats materialak, egitatezko akatsak edo akats aritmetikoak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, administrazioaren kabuz edo interesdunak eskatuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 105.2 artikuluak xedatutakoari jarraiki.

4.– Lehiatzaileak onartzea.

4.1.– Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen zerrenda: eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Langileriaren Kudeaketa zuzendariak hilabeteko epean emango du ebazpena, eta horren bidez onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda onartuko da. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta bertan adieraziko da zerrenda hori non dagoen erakusgai, jendeak ikus dezan.

Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen zerrenda hori, betiere, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan azalduko da. Zerrendak ondokoak jasoko ditu, gutxienez: abizenak, izena, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, edo antzekoren batena atzerriko nazionalitatea dutenentzat; kanpoan utzitakoen kasuan, berriz, kanpoan uzteko arrazoia ere adierazi beharko du. Halaber, gaztelaniaren jakite-proba egin behar duten izangaiak adieraziko dira.

Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen zerrenda onartzen duen ebazpena argitara ematean, egindakotzat joko da interesatuei egin beharreko jakinarazpena, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

4.2.– Erreklamazioak: aurreko paragrafoak aipatzen duen zerrendaren aurka, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehenago, izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute edo, bidezko bada, lehiaketaz kanpo geratzeko akatsa konpondu ahal izango dute. Horrez gain, euren datu pertsonaletan akatsen bat antzeman duten izangaiek epe bera izango dute akatsa zuzentzeko. Erreklamazioak Langileriaren Kudeaketa zuzendariari igorriko zaizkio, eta Hezkuntzako Lurralde-Ordezkaritzetan zein Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 38.4 artikuluan adierazten dituen bulegoetan aurkeztuko dira.

Adierazitako epe horretan, halaber, interesatuak ez badu konpontzen kanpo uztea eragin duen arrazoia, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.3.– Onartutakoen eta kanpo utzitakoen behin betiko zerrenda: Langileriaren Kudeaketa zuzendariak emandako ebazpenaz onartu edo ezetsiko dira aurkez-

vo y publicada la relación de aspirantes que lo hayan superado, conforme a lo dispuesto en la base 9.1, a excepción de la exigida en la letra a) y en la letra b), apartado 4, que deberá presentarse junto con la instancia.

3.8.– Los errores materiales, de hecho o aritméticos que pudieran advertirse en la solicitud podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición del interesado, conforme determina el artículo 105.2 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Admisión de aspirantes.

4.1.– Lista de admitido/as y excluidos/as: finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Directora de Gestión de Personal dictará resolución en el plazo de un mes, declarando aprobada la lista provisional de admitidos/as y excluidos/as. En dicha resolución, que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, se indicarán los lugares en que se encuentre expuesta al público la referida lista.

La lista de admitidos/as y excluidos/as se pondrá de manifiesto, en todo caso, en las Delegaciones Territoriales de Educación. En la lista deberán constar, al menos, los apellidos, nombre, número de documento nacional de identidad o análogo para los de nacionalidad extranjera, así como, en el supuesto de exclusión, la causa de la misma. Asimismo, se indicará los/as aspirantes que deben realizar, en su caso, la prueba de conocimiento de Castellano.

Con la publicación de la resolución que declare aprobada la lista provisional de admitidos/as y excluidos/as se considerará efectuada la correspondiente notificación a los/as interesados/as, a los efectos que dispone el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

4.2.– Reclamaciones: contra la lista a que se refiere el párrafo anterior, los/as aspirantes podrán presentar reclamación en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su publicación, o subsanar, si procede, el defecto que haya motivado la exclusión. Asimismo, aquellos/as aspirantes que hayan detectado errores en la consignación de sus datos personales podrán manifestarlo en este mismo plazo. Las reclamaciones se dirigirán a la Directora de Gestión de Personal y se presentarán en las Delegaciones Territoriales de Educación o en las oficinas a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En el caso de que el/a interesado/a no subsane el defecto que haya motivado su exclusión en el plazo indicado, se le tendrá por desistido de su solicitud, de conformidad con lo que dispone el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

